

Estiloaren adierazpena Bizkaiko eliz arkitekturaren (1850-1930)

Eva Diez Paton

Artearen Historia eta Musika Saila. Euskal Herriko Unibertsitatea

Artikulu honetan, Bizkaiko eliz arkitekturaren gaineko ikuspegi orokorra eman nahi da, eta ikuspegi hori lotuko da monumentu historiko artistikoetako esku-hartze nagusiekin. Gure helburua da aztertzea ea XIX. mendeko arkitektoek baliatu zuten errepertorio estilistiko aberatsak eraginik izan zuen sortu berri zen diziplinan: monumentuen zaharberritzean.

GAKO-HITZAK: Arkitektura. XIX.-XX. mendeak. Estiloa.

This article tries to give an overview of the religious buildings of Bizkaia, putting it in relation to the major interventions of the historical and artistic monuments. Our goal is to analyze whether the rich repertoire of style that pervaded nineteenth-century architect employed a new discipline that had just emerged: the restoration of monuments.

KEY WORDS: Architecture. 19th and 20th centuries. Style.

Jasotze-data: 2010-01-20. *Onartze-data:* 2010-04-26.

Sarrera

XIX. eta XX. mendeetako arkitektura-jarduera hain da askotarikoa, ezen, batzuetan, zaila baita jarduera hori ezagutzea. Ezaguna da XIX. mendeko arkitekturak izan duen begirune-falta, irudimen, sormen eta interesik gabeko arkitekturatzat jo izan baita.

Spainian, duela urte gutxira arte, garai hartako arkitektura kontzienteki ahaztu du historiografia artistikoak. Gure lurraldean ere pentsamendu hura zen nagusi, baina 1980ko hamarkadan hasi zen gure hirien irudiaren elementu nagusia den ondarearen aberastasuna aldarrikatzen.

Gaur egun, ez luke inork zalantzan jarriko gure hirietako eraikin enblematikoenak diren zenbaiten balio historiko eta artistikoa: Bizkaiko Foru Aldundiaren eraikina (Bilbo), Donostiako kasino, Bilboko Udaletxea eta abar. Historialariek eta arkitektoek sakon aztertu dituzte eraikin horiek, eta gure historiako une jakin batean izandako aldi gorenaren adierazpentzat jotzen dira gaur egun. Burgesen instituzioen irudiak lirateke, horiek politikan, gizartean eta ekonomian zuten boterea erakusteko bitarteko bihurtu baitzituzten arkitektura-lanak.

Baina, zer gertatzen da eliz arkitektura aztertzen hastean? Egoera atsekabetzeko modukoa da. Gaur egun, historialariren batek gai horri heldu nahi badio, eremu hutsa aurkituko du. Badirudi eliz arkitekturaren analisiak soilik oso markatua den esparru kronologikoan jartzen duela arreta: XII. mendetik XVII. mendera bitartean; alegia, Erdi Aroaren eta Barrokoaren artean. Hala ere, Antón Capitelek adierazitakoaren arabera, inork ez du jarraitu Vicente Lampérez y Romearen lan ezaguna; egiteke dago aro modernoko eta mundu garaikideko Espainiako eliz arkitekturari buruzko azterlan orokorra (Pérez de la peña, 2004: 11). Askotariko artikuluetan aipatzen dira arkitektoak edo eraikinak, noizean behin, baina ez dugu arkitektura-lanaren ikuspegi bateratu eta orokorrik, eta hori funtsezkoa da tipologia hau baloratzeko.

Bizkaian, zehazki, 2004. urtean, erakusketa bat antolatu zen, «Bizkaiko Eliz Arkitektura Garaikidea 1865-1975. Erromantizismotik Mugimendu Modernora» izenburu zuena, Bizkaiko Eliz Museoari eta Bizkaiko Elizaren Historia Artxiboari esker. Erakusketaren katalogoan, adituari analisi historiko eta artistikoa egitea erraztuko dion ikuspegi eskaini da, eta, gure ustez, abiapuntua ezarri da. Orain, abiapuntu horri jarraitu behar zaio.

Gure ondarea aztertzeak lehenetasuna izan behar du, garaiari edo estiloari lotutako gaietatik at. Arte-estilo edo adierazpen jakin batzuk ez ezagutzeak edo haiei balioa murrizteak ondarea gutxika-gutxika desagertzea ekar dezake. Horren erakusgarri da monumentu historiko artistikoez jasan duten hondatze sistematikoa edo haien ia begirunerik gabeko erabilera.

XIX. mendea bereziki gogorra izan zen, alde horretatik. Desamortizazioen eraginez, komentu zaharrei bestelako erabilerak eman zitzaizkien (kuartelak jarri ziren eraikin haietan, adibidez) edo suntsitu egin ziren, komentuak zeuden

orubeetan bestelakoak egiteko¹. Horrenbestez, komentuak eraitsi ziren eta, haien tokian, garai berrirako egokiagoak ziren eraikinak egin ziren, besteak beste, tren-geltokiak eta aduanak. Halaber, garai hartan biztanle kopurua gehitzeak XIX. mendeko zabalgunek ekarri zituen. Hedatze haiek egiteko, zenbait kasutan, hirigune historikoak inguratzen zituzten harresiak eraitsi behar izan ziren².

Hori aintzat hartuta, honako galdera hau egin geniezaioke geure buruari: esperientzia horrek balio izan al du ezertarako? Artikulu honetan proposatutako mugak eta gaia gainditu gabe, zenbait hiritan —besteak beste, Bilbon— egin diren jarduerak ikusita, zalantza dugu gai horretan ezer aurreratu ote dugun. XIX. mendean amaierako eraikin bikainetan zaharberitze sakonak egin dira edo egiten ari dira, hala nola Campos Eliseos antzokian, garai bateko gordetegi frankoan eta Castañoseko garbategian. Eraikin horiek ondo aztertuta eta dokumentatuta dauden arren, eraikinotan aurrealdea baino ez da mantendu; soilik kanpoaldea utzi da «zegoen bezala», eta barruko egitura guztiz eraitsi da. XIX. mendeko monumentuak «hondakin pintoresko» bihurtzen dira, eta gutako askori tristura-sentsazio sakona eragiten digu monumentuak desagertu direla ikusteak.

Gure monumentuak ikertzea beharrezkoa da, mantendu eta heda daitezen. Ondarea gure eskuetatik hurrengo belaunaldietara igaroko dela ziurtatzeko, lehentasuna izango du ondare horren barruan dauden balioak ezagutarazteak, esparru zientifikotik harago. Guztion ardura den eta guztiona den kulturaren irudi kolektiboaren ikurra eta aldi berean sintesia da ondarea. Hortaz, gizarteak beharrezko tresnak izan behar ditu ondasunak balioesteko; izan ere, John Ruskinek esan bezala: «Ez dira gureak. Eraiki zituztenak dira ondasun horien zati baten jabe, eta, beste zatiaren jabe, etorriko diren belaunaldiak» (Ruskin, 2002).

Estiloaren gaineko arazoak

Bada XIX. mendeko arkitekturaren eztabaidaren muina izan zen gai bat: estiloa. Iraganeko forma askotarikoenak onartu eta garatu izana zen aldi haren ezaugarri bat: gotikoa, erromanikoa, bizantziarra, hindua, mudejarra, txinatarra eta abar. Mintzaira horiek guztiak aldi berean garatu ziren, eta ezin esan daiteke bat bestea baino gehiago nabarmendu zenik. Arkitektoek saiakuntzak egin zituzten formarik desberdinenekin, garai haren adierazgarritzat forma haietakoren bat jotzea espero baitzuten; alegia, mende hura hobekien definituko zuen estilotzat. Beraz, arkitekturaren historian ezohiko gertakaria izan zen hura; hots, estilo-gabezia³.

1. Bilbo hiribilduaren kasuan: Santa Monika komentua bota egin zuten eta haren orubean Aduana eraiki zen (1845); Sortzez Garbia komentuan tren-geltokia eraiki zen; Gurutze Santuaren komentua bota (1845) eta bigarren mailako irakaskuntzako institutua sortu zen; Santa Klara komentua jabetza partikularrera pasatu zen eta mojek komentu berria eraiki zuten Begoñan. Gaur egun hauek soilik jarraitzen dute zutik: Gizakundea komentua, orain Bizkaiko Eliz Museoa dena; eta Mesedeetako komentua, orain Bilborockerako berrerabiltzen dena. Gizonezkoen komentu guztiak desagertuta daude: San Mamesekoa besterendu eta Benefizentzia etxea eraiki zen bertan (1862); San Frantziskoko komentua bota (1858) eta infanteriako kuartela jarri zen orube hartan; erortzeaz zegoen San Agustín komentuaren orubean, berriz, Bilboko Udala dago orain (1883-1892), Joaquín Rucobaren lana.

2. Adibidez Donostiako harresiak 1864. urtean bota egin zituzten.

3. Broch, H. (1979): *Kitch, vanguardia y el arte por el arte*, Bartzelona, Hernando, J. (2004): *Arquitectura en España 1770-1900*, Cátedra, Madril, 172. orrialdean aipatua.

Iraganeko estiloak XIX. mendera nola iritsi ziren ulertzeko, lehenbizi, garai hartakoek Historia nola ulertzen zuten aztertu behar da. XIX. mendean, lehenago inoiz ez bezalako interesa sortu zen Historiarekiko. Historia guztiz organiko gisa ulertzen zen, eta orainaldia, dena eratzen zuen kate luzeko beste katebegi bat zen. Historiaren denbora aurreko garaien emaitza eta oinordekoa zen. Hortaz, XIX. mendeko gizartearentzat, oraineko egoerei erantzuna emateko modurik onena iragana aztertu eta ezagutzea zen (Honour, 2004).

Arkitekto batek estilo jakin bat garatzea erabakitzen zuenean, eraikuntza iraganeko garai hartako sistema espiritual, sozial eta politikokoaren laburpen bihurtzen zen. Estiloa ez zen jotzen apaingarri soiltzat; ideia jakin batzuen igorle bihurtzen zen (Hernando, 2004: 174). Adibide gisa hartuko dugu Erdi Aroko berpiztea, Goethe pentsalari eta idazle alemaniarraren eskutik.

La primera vez que fui a la Catedral, tenía la cabeza llena de un conocimiento general acerca del buen gusto. De oídas admiraba la armonía de las medidas, la pureza de las formas, era un enemigo declarado de la confusa arbitrariedad de los ornamentos góticos. Bajo la rúbrica de “gótico”, como si se tratara de un artículo de diccionario, apilaba todos los errores, de tipo sinónimo, que por aquel entonces corrían por mi cabeza: lo indeterminado, lo desordenado, lo innatural, lo hecho de retazos, lo remendado, lo sobrecargado. Con no menor imprudencia que el pueblo que llama bárbaro al resto del mundo, yo llamaba gótico a todo aquello que no concordaba con mi sistema (Goethe, 1999: 35).

Testu hori Goethek idatzi zuen 1772. urtean, artean gaztea zela, eta XVIII. mendearen amaierako gustuaren erlatibismoa aditzera eman zuen. Goethek *Sturm und Drang* mugimenduarekin eta Herder filosofoarekin zuen adiskidetasu-naren esparruan eraiki zuen ideia hori, eta pentsamendu horrekin defendatu zuen ez dutela zertan «greziarra den horretako» arauak diktatu gustua. Hortik, «gustuaren erlatibismoa nazioetan» sortu zen, herri, ohitura, klima, ingurune eta bestelako bakoitzaren arabera (Marchán, 2008: 433). Klasikoa zenaren hegemonia gain-behera etorri zen, hurbilekoenaren, orduko hartan, gotikoaren, mesederako.

Acaso no debo encolerizarme, santo Erwin, cuando el entendido alemán en arte, al dictado de sus envidiosos vecinos, no aprecie su superioridad y minusvalore tu obra atribuyéndole el incomprendido concepto de “gótica”. Él tendría que agradecerle a Dios y proclamar: esto es arquitectura alemana, nuestra arquitectura (Goethe, 1999: 37).

Erdi Aroko arkitektura eta arte klasikoko «normatibismoa» desagerraraztea ez ezik, nazioak eta gizarteak monumentu historikoen jabetza lortzea ere bultzatu zen. Arkitektura herriaren, bere historiaren eta tradizioaren erakusgarri kontsideratu zuten. Beraz, Goethe gazteak «hau da arkitektura alemaniarra» aldarrikatzen zuen Estrasburgoko Katedralaren eta haren forma gotikoen aurrean.

Bertakoa dena onartze eta balioeste horrek monumentu kontzeptuaren zabaltze ideologikoa ekarri zuen. Goethek adierazi bezala, edertasuna «neurrien harmonian, formen araztasunean» baino ez zegoen eta, beraz, norberarena miresteko eta norberarena begiestearekin gozatzeko joera sortu zen, eta bertako horretan adierazten zen herriaren espiritua, hots, Volksgeist delakoa. Dena den, arte-estilo guztiek ez zuten izan gotikoak (eta, bereziki, katedral gotikoek) bezain

onarpen onik. Estilo batzuk, hala nola barrokoa, ez ziren oso balioetsiak izan, eta kontzienteki urrundu ziren sortzen ari ziren ondarea mantentzeko ekintzetatik.

Arkitekturak interesa piztu zuen mundu erromantikoan, eta iraganaren eta orainaren arteko loturatzat jotzen zen. Lotura hori aztertu behar zen eta balio handiagoa eman behar zitzaion, garai hartan interesgarriak ziren balioak berreskuratzeko (bertakoa, Erdi Arokoa, erlijioso eta abar). Pentsamendu berri hark monumentu historiko artistikoei buruzko hainbat azterlan argitaratzea ekarri zuen, estilo gotikokoak batik bat, baina baita monumentu haiek iraurarazteko beharra ere. Horri esker, monumentuen zaharberritzea sortu zen. Pedro Navascuésék ezin hobeto azaldu zuen gertakari horren garrantzia eta izan zituen ondorioak:

Se inauguraba así una etapa nueva en la historia de los edificios, la de la “restauración”, que al tiempo que atendía la obra dañada incorporaba al edificio criterios hijos de su época y por lo tanto distantes de los que dieron en origen. Puede pensarse que esto fue siempre así en arquitectura, pues no existiría ésta sino se hubiera producido una paralela historia de la restauración arquitectónica, pero la conciencia de estar restaurando un *monumento* de carácter *histórico* frente a los criterios simplemente funcionales de antaño dan, a la restauración del siglo XIX un matiz muy distinto (Navascués, 1992: 60).

Estiloaren adierazpena eliz arkitekturan

Navascuésék berak bialdi bereizten ditu Espainian estilo neogotikoak izan duen bilakaeran: «gotizista» eta neogotikoa. Gotizistaren barruan leudeke 1868. urtea baino lehen hasitako obra guztiak. Lan haiek ez ziren iritsi eraikitze-sistema gotikoa berenganatzera, eta mintzaira apaingarri soil gisa erabili zuten. Aldi neogotikoa 1868. urtetik aurrerakoari esan dio, eta aldi hark ekarri zuen Espainiako arkitektura Viollet-le-Duc arkitekto arrazionalistaren postulatuei atxikitzea⁴.

Bizkaian ez zen barneratu korrante «neomedievalista» XIX. mendearen erdialdera arte, batez ere neoklasizismoa gogor garatzearen eta mugimendu horrek gizartean zuen onarpen handiaren eraginez. Gure lurraldean luze iraun du, hain zuzen, 1777. urtetik 1860. urtera bitartean (ZZ EE, 1991: 77-113). Iraupen luze hori kontuan hartuta uler daiteke paramentu klasizista garbia alde batera utzi eta, horren tokian, Erdi Aroak ezaugarri izan zuen apaindura onartzeko zailtasuna.

Bizkaian, honako hauek jo izan dira neomedievalismoaren lehenengo adibidetzat: Santa Ana ermita (1864-1865), Pedro Belauzarán arkitektoak Areetan eraikia; Santurtziko Hijas de la Cruz ikastetxeko kapera (1869), egile ezezagunekoa; eta Portugaleteko Epalza jauregiko kapera (1871-1873), Francisco de Oruetak egin zuen baina desagertu da, dagoeneko (Pérez de la Peña, 2004: 39).

Santa Ana ermita oso eraikin bakuna da: gorputz kubikoa du, eta bi isurkiko estalkia. Kanpoaldean, horma-bular nabarmenek arkitektura sendotzen dute, eta, ermitaren aurrealdean, frontoi klasikoaren antzeko elementu bat ikusta daiteke. Egileak, elementu hori egin ordez, arrosa-leiho soil bat egin zuen. Badirudi arku zorrotzetatik sortzen diren lore handiek, flamak eta pinakuluek arrosa-leiho

4. Navascués, P. (1973): *Arquitectura y arquitectos madrileños del siglo XIX*, Madril, 200. or., Hernando, J. (2004): *op. cit.* 98. orrialdean aipatuta.

irensten dutela. Horren emaitza izan zen, hortaz, eraikin klasizista, arkitektura gotikotik ateratako elementuz apaindua.



1. irudia. Santa Ana ermita (1864-1865).

Santa Ana ermita oso eraikin bakuna da: gorputz kubikoa du, eta bi isurkiko estalkia. Kanpoaldean, horma-bular nabarmenek arkitektura sendotzen dute, eta, ermitaren aurrealdean, frontoi klasikoaren antzeko elementu bat ikusta daiteke. Egileak, elementu hori egin ordez, arrosa-leiho soil bat egin zuen. Badirudi arku zorrotzetatik sortzen diren lore handiek, flamak eta pinakuluek arrosa-leihoa irensten dutela. Horren emaitza izan zen, hortaz, eraikin klasizista, arkitektura gotikotik ateratako elementuz apaindua.

Bitxia bada ere, lehenengo esperientzia neomedievalista hori eta jaurerrian egingo zen monumentuak zaharberritzeko obra nagusia parez pare egin ziren. Hain zuzen, Bilbo hiribilduko Santiago Jauna Katedral-Basilika, sorteliza zaharberritzeko obra.

Zaharberritze-obrak 1844. urtean egin ziren, elizaren egoera zela-eta, garai hartan dagoeneko ezinezkoa baitzen eliztarrei Jainko-gurtza eskaintzea. Lehen Karlistadan eraikina, bai eta klaustroarekin ere, behin-behineko artilleria-biltegi gisa erabili izanak hondatze hori eragin zuen. Dorrean, bestalde, kanoi bat jarri zuten hiribildua defendatzeko⁵.

Nolanahi ere, 1867. urtean, elizaren erabateko zaharberritzea sustatu zen. Besteak beste, gangak, galeriak eta erlaitzak apaindu ziren, hargintza-obrak egin ziren⁶, arrosa-leihoa konpondu zen eta leihoak eraiki eta konpondu ziren. Obra

5. BFA – Bilboko Udal Agiritegia 0360/001/001/003.

6. BFA – Bilboko Udal Agiritegia 0585/024.

haien bitartez, eraikinari irudi duina eman nahi izan zioten, Erdi Aroko izaera mantenduz, eta arkitekturaren bitartez adierazi nahi izan zuten Bilbo hiribilduaren erlijio-espirtua. Izan ere:

No puede mirar con indiferencia el abandono que existe en muchas cosas que tan directamente contribuyen á sostener y fomentar estos sentimientos. El Ayuntamiento de Bilbao, al prestar su cooperación a la Comisión del Culto para dar á este toda la grandeza posible en las circunstancias actuales, no hará más que ser fiel intérprete de los sentimientos del vecindario de esta Y. Villa a quien representa⁷.

Bi obrek erlijio-helburu berak al zituzten? Zer zela-eta, interes mediebalista hura? Bi kasuetan, burgesia sortzen ari zela ikus daiteke. Lehenengoan, Aguirre familia agertu zen, Maximo Aguirre buru. 1856. urtearen inguruan «Vega de Lamiaco» zeritzon ibarreko lurak eskuratu zituen, gaur egungo Santa Ana auzoan (Getxo). Familiak laket-gunetzat zuen eremu hura, uda bertan igarotzeko. Maximo Aguirre hil zenean, haren alargunak eta seme-alabek gune hartan lehendabiziko eraikinak egin zitezten sustatu zuten. Lehenengo eraikin horietako bat izan zen Santa Ana ermita⁸.

Bestalde, mendearen erdialdeko Bilbo bere biztanleria-gune historikoan mugatuta zegoen. Hiribildu txikian bazegoen, dagoeneko, lehenengo zabaltzea egiteko asmoa. Zabaltze haren proiektua egiteko ardura Amado de Lázaro ingeniariaren esku utzi zen 1862. urtean, baina udalak uko egin zion proiektuari azkenean⁹. Gertakizun hark erakusten du bilbotar gehienak, oraindik, Alde Zaharrean eta Bilbo Zaharrean bizi zirela eta, beraz, gune haietan zeuden elizek bete behar zituzten eliztarren erlijio-beharrak.

Ikus daitekeenez, hemeretzigarren mendeko bizitzatik ezin bananduzko elementua zen erlijioa, bai hirian gune berriak sortzean, bai hirigune historikoetan. Sentitzeko modu espiritual hori Erdi Aroko formen eta hizkuntzaren bitartez adierazten zen. Erdi Aroko berpiztea agertu zen eta, horren parez pare, Bizkaiko industrializazio hasiberria, aurrerapen eta aberastasun ekonomiko handiagoaren iragarpena.

Burgesiaren espirtua beti egon zen pentsamendu liberalari lotuta eta, ondarearen arloan, ekintza dramatikoetan adierazten zen, hala nola monasterioko ordenen desamortizazioetan eta sekularizazioetan. Orobat, bilbotarrak mesfidati izan ziren beti Espainiako hainbat tokitatik etorri ziren langileekiko, bi gertakariak beren mundu zaharrerako mehatxutzat jotzen baitzituzten. Hortik, bi mutur kontrajarri sortu ziren: iragana eta oraina. Aurrerapen ekonomikoa eta gizakiena, eta garai hartako erlijio-sentipena bizikide ziren iragana; eta soilik industriaren garapenean arreta jarrita zuen oraina.

7. BFA – Bilboko Udal Agiritegia 0394/111.

8. Beascochea, J. M. (1993): "Sociedad y política territorial en Getxo (1855-1935). La familia Aguirre-Coste", *Cuadernos de Sección*, Historia-Geografía, 309. or.

9. Ikusi Basurto, N. (1987): "El plan Lázaro. El veto a una utopía urbana", *Kobie*, Arte ederrak, 101-113. or; Ridríguez Escudero, P. (1988): Memoria descriptiva sobre el proyecto de ensanche de la villa de Bilbao, 1862, Eusko Jaulaitzaren Argitalpen Zerbizu Nagusia, Gasteiz; De la Hoz, S. (1993): "Un frustrado proyecto de urbanización para el Bilbao del siglo XIX: Amado Lázaro y su obra para la Villa", Eusko Ikaskuntza. Cuadernos de Sección. Historia-geografía, 195-210. or.

Egoki deritzogu Augustus Welby Northmore Pugin arkitekto eta pentsalari ingelesaren hitzak hemen aipatzeari. *Contrasts* (1836) lanean Erdi Aroko irudiak eta Ingalaterra garaikideko eszenatokiak erkatu zituen. Langileak pilatuta, lantegiak, makinak eta abar biltzen zituen gizarte industrialaren aurrean jarri zituen Jainkoaren eta gizakien artean orekatuta zegoen gizartearen irudiak; gizarte horretan, katedralen orratzak zeruetara goratzen ziren eta benetako erlijioa adierazten zuten, «hain zuzen, eta ez halaberharrez, arkitektura gotikoan lortua, arkitektura gotikoak ezarri baitzituen diziplina horretako “benetako oinarriak”» (Moneo, 1975: 9).

Erdi Aroko gizarterako itzulera hori estilo gotikoaren bitartez bideratu zen. Arkitektura-eredu moral eta erlijiosotzat hartzen zen; edertasunetik bihurtzeko eta gizakiari «benetako oinarriak» hurbiltzeko gai zen eredutzat. Eroskunde soziala, arkitektura gotikoaren bitartez. Haren doktrinaren eta pentsamoldearen adibide argia da Pugin bera katolizismora aldatu izana: «Kaperu eder bat eraikitzen ari dira, orain; uste osoa dut, bukatzen dutenean, aldatuko naizela».

Bizkaiko eliz arkitekturako gustu neomediebalista XX. mendearen hasierara arte zabaldu zen. Horren erakusgarri dira, besteak beste, Bilboko Mendiko San Jose eliza (1908-1918), José María Basterra arkitektoak egina; eta Indautxuko Karmengo Andre Mariaren eliza (1907-1911) desagertua, Leonardo Rucabado arkitektoaren obra.

Monumentuen zaharberritzeari dagokionez, zenbait arkitekto (hala nola Julio Saracibarrek) desagertutako atalak berreraikitzea erabaki zuten aurrerantzean ere. Hizkera jasoko eta jatorrizko fabriekin oso bat ez zetozen mintzairaren bitartez berriro zituzten. Halakoen erabilera ikus daiteke Portugaleteko Andra Mari basilikan eta ate-dorre neomediebal ikusgarria eraikitzeko proiektuan (proiektua ez zen gauzatu)¹⁰.

Era horretako esku-hartzei neomediebalista edo historizista deitu diegu. Gai honen hasieran, aipatu dugu XIX. mendeko arkitektoek ezinezko zutela estilo bakar bat eratzea; estilo horietako bat neoklasizismoa izan zen. Horra hor zergatik sartu diren historizismo eta eklektizismo terminoak historialariok aztertu behar ditugun estilo-aniztasunera eta aberastasunera.

Peter Collinsen arabera, eklektizismoa «iraganera begirako jarrera berezia izan zen, eta bereziki XIX. mendearen bigarren erdialdean nagusitu zen» (Collins, 1998: 117). Bestalde, historizismoa izango litzateke «aldi berean egindako hainbat arkitektura mota, eta mota batek ere ez du nahikoa botere lehiakideei lekua kentzeko edo lehenago eraiki zen arkitektura gainditzeko» (Collins, 1998: 57). Azken finean, historizismoa bizi-berrialdi edo *revivalen* adierazpen bereizgarria baino ez litzateke izango, eta, eklektizismoa, handik eratorritako adarra litzateke. Ondoren, Luciano Patteta ikuskera hartatik harago joan zen, eta eklektikotzat jo zuen 1750. urtetik Mugimendu Modernoaren hasierara bitarteko arkitekturako ekoizpen guztia (Argan, 1977: 129).

10. PUA –93. Kutxa, 65.

Beraz, aldi hartako arkitektura, era berean, eklektikoa eta historizista izan zen. Historizista, adierazten duen arte-adierazpen haren ikuspegi ideologiko eta kulturekin bat datorrelako; eta, eklektikoa, arkitekturaren adierazpena bera delako (Hernando, 2004: 176; Isac, 1987: 7-9). Pedro Navascués-ek arkitektoen bi belaunaldi aipatu zituen (Navascués, 1997: 439-440), Espainiako eklektizismoaren barruan. Lehen belaunaldikoak lirateke 1850. urtearen inguruan jaiotako guztiak; eta, bigarren belaunaldikoak, XIX. mendearen azken laurdenean jaiotakoak, eta arkitekto-titulua 1900. urtearen inguruan lortu zutenak. Navascués-ek Collinsen planteamenduarekin bat egin zuen, eta arkitektura eklektikoaren sorrera XIX. mendearen erdialdean kokatu zuen, berak ere.

Ekar ditzagun ideia horiek, orain, Bizkaiko Jaureriko arkitektoen esparrura. Manuel Maria de Smith (1879-1956) arkitekto bilbotarra hartuko dugu adibide gisa. 1903. urtean lizentziatu zen, eta bere lehenengo enkargu erlijiosoak sinatu zuen Marcelino de Arrupe arkitektoarekin lankidetzan: Durangoko Aita Jesuiten Egoitza (Paliza, 1988: 415). Lau angeluko eraikin handia zen eta kaperak zatitzen zuen. Kanpoaldea oroitzapen gotizisten imafrente boteretsua zen, eta lau dorrek eusten zioten. Jatorrizko proiektuan pinakuluek ematen zioten akabera, baina ez dute gaur egunera arte iraun.

Gorputz nagusia kaperari dagokio, eta oroitzapen mediebalista argiak ikus daitezke (arku zorrotzak, krismo originala aurrealdearen erdian, gargolak eta abar). Aitzitik, aldeetako gorputzetan, eta bereziki dorreetan, galeria irekietan eta teilatu-hegaletan, gustu erregionalista ikus daiteke, eta mendearen amaierako estilo neoplatereskorantzko joera ahalketsua dario.

José María Bastera (1862-1934) arkitektoa Madrilgo Arkitektura Eskolan lizentziatu zen 1887. urtean. XIX. eta XX. mendeetako arkitektura erlijiosoaren eremuko pertsonaia nabarmenetakoa da elizbarrutiko arkitekto gisa egindako lanarengatik. Eraikuntza eta monumentuen zaharberritze zerrenda zabalaren artetik Bilboko Begoñako Amaren Basilikako dorre berriaren eraikuntza aztertuko dugu.

Basilikak eraikuntza-bizitza konplexua izan du, suntsiketa eta berreraiketa ugarirekin; aipagarrienetakoa Antonio de Armonak 1849an hasitakoa eta ondoren Atanasio de Anduiza arkitektoak 1881ean berreraikitakoa izan da. Hala ere, egungo itxurak José María Bastera arkitektoaren trazuei erantzuten die, nabarmenki arkitekto eklektikoa. 1902. urtean inauguratu zen eta Eraikuntzaren Batzordeak arkitektoei 1898ko deialdiko lehiaketan emandako ekintza-askatasunari erantzuten dio. Joera errenazentista nahiz gotikoa hartzeko aukera eman zuten, baita bi estiloak hartzekoa ere, honako hau prestatu nahi zela nabarmenduz:

La futura unificación y armonía interna de la Iglesia dentro de la arquitectura ojival, la más adecuada con sus elevadas naves sus apuntadas ojivas, las esbeltas columnas, los ligeros arcos boterales, los calados imafrentes, las atrevidas agujas y el predominio de las líneas verticales a constituir el símbolo de las aspiraciones al cielo de la Fe Cristiana¹¹.

11. (1898): *Concurso de Proyectos para levantar una Torre en el Santuario de Nuestra Señora de Begoña*, Tipografía de Sebastián de Amorrortu, Bilbo.



2. irudia. Begoñako Basilikaren dorre berria José María Basterraren eskutik.

Eraikuntzaren Batzordearen hitzek «batasun estilistikoaren» nahia aditzera ematen dute, garai hartan Espainian monumentuen zaharberitze-lanetan gehien berretsitako irizpidea. Basterrak forma beherakorra eta Erdi Aroko estiloaren berezko bertikaltasuna zuen dorrea aukeratu zuen, estilo horretatik kanpoko elementuak gehituz, hots, pilastrak, tondoak eta abar; elementu horiek oroitzen errenazentista arinak ekartzen dizkiote multzoari.

Nola definitu mota horretako esku-hartzeak? Proiektu arkitektonikoari erabateko askatasunarekin heltzen dioten arkitektoen belaunaldiarekin egiten dugu topo eta historiografia artistiko oparoak dioena gorabehera, sormenarekin. Joan Martorellena Iglesia de las Salesas eliza (1882-1885) definitzeko Pedro Navascuésék esandako hitzak jasotzen ditugu hemen, Smith eta Basterraren obrarako erabat aplikagarriak direnak.

Lo medieval radica más en nuestro deseo de considerarla como tal que en el edificio propiamente dicho. Nos resultaría difícil encontrar en la historia de la arquitectura una iglesia medieval como esta, ni su volumen, ni su escala, ni la relación de proporciones de sus elementos, ni el perfil, nada, en definitiva pertenece a una “escuela” conocida (Navacués, 1997: 490-491).

Eklektizismoa Erdi Aroko beste zenbait estilotan ere aldarrikatzen da, estilo nazionalak espiritu erromantikoaren itzalean indartuz. Hori da tradizio hispaniar-musulmanaren kasua, adreiluzko arkitektura mudejar estiloan garatzeko joera izugarria topatzen dugu. Estilo horretan, besteetan ez bezala, materiala eraikinetik bereizi ezineko elementua da. Izan ere, adibide horien aurrean maiz galdera hau planteatzen da: zer da erabakigarriagoa neomudejar obra kalifikatzeko, adreiluaren erabilera ala konfigurazio estilistikoa? (Hernando, 2004: 247).

Javier Hernandoren ustez, bi faktoreek estiloa konfiguratzeko bereizi ezin den unitatea sortzen dute. Hala eta guztiz ere, gogoan izan behar dugu hori ez dela kultura eklektizistaren adierazpen bat baino. Hori dela-eta, zenbait kasutan «adreiluzko arkitektura» delakoari erantzuten dioten fabrikak topatzen ditugu; libreki eta modu fantasiosoan konbinatzen dituzte mudejar formak Erdi Aroko bestelako formekin.

Hori izango litzateke José María Basterra arkitektoaren Jesusen Bihotzaren elizaren kasua, «La Residencia» moduan ere ezaguna (1891). Adreilua eta harri zuria konbinatzen dituen eraikina da, azken hori nagusiki hauetan erabiltzen da: atarian, arkupe lobulatuen galerian, kontrahormetan, eskantzuetan, kanpaien gorputzetan eta desagertutako orratzetan. Barrualdea gurutze-gangaz estalitako hiru habearteren bidez eta abside poligonalaren bidez banatzen da, eraikuntzaren gainean kolore biziko apainketa polikromo aberatsa nabarmenduz. Azken batean, Bilboko zabalguneko tenplu horrek XIX. mendeko arkitekto eklektikoaren izaerari erantzuten dio. Mudejar estiloa definitzen duen materiala, adreilua, hartu eta gotikotik ateratako formekin libreki konbinatzen du.

Mudejar forma estilistikoen eta adreiluaren erabilera Bizkaiko monumentuen zaharberitze-praktiketan sartzea zaila zen, Euskal Herrian izan zuen presentzia puntuala dela-eta.

XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran bizi laburreko estilo berria sortu zen, Modernismoa. Garaiko arkitektura biziberritzeko nahiarekin eta horrek iraganeko formekiko duen zorra behin betiko kentzeko asmoarekin sortu zen. Gure lurraldeko arkitektura erlijiosoan ia garapenik izan ez zuen estiloa izan zen, baina Espainian erreakzio ugari sortu zituen (Urrutia, 2003: 139). Haiek modernismoa atzerritar jatorriko moda arrunt moduan hartzen zuten eta arkitektura nazionalera itzultzeko proposamena egin zuten. Ildo horretatik, hiru korrante nagusi sortu ziren: neoplatereskoa, neobarrokoa eta erregionalismoa (Paliza, 1988: 182).

Lehen esperientzia horren jatorria 1867. urtean koka dezakegu, Jerónimo de la Gándara arkitektoak Espainiako pabiloia eraiki zuenean Parisko Erakusketa Unibertsalean. Erabateko eklosioa José Urioste y Velada arkitektoarekin lortu zuen 1900. urteko Parisko Erakusketa Unibertsalerako eraiki zuen Espainiako pabiloiarekin.

Neobarrokoak Juan Moya Idígoras arkitektoak Madrilgo hiribilduan egindako lanekin ezagutu zuen garapen gorena, hala nola San Jose elizako (1910) parrokoaren etxea bezalako eraikin esanguratsuekin.

Bizkaian, joera horrek erlijioaren alorrean Ricardo Bastida udal-arkitektoarekin ezagutu zuen adierazpen gorenena. Haren proiektuen artean Bilbo hiribilduko tenplu enblematico eta zentrikoenetako baten —Abandoko Done Bikendi Martiriaren elizaren— zaharberritze osoa (gauzatu ez zena) nabarmentzen da. 1926. urtean datatua, tenpluaren itxura erabat aldatzea planteatu zuen. Hauts-babes arku moduko egungo fatxada neurri handiko dorre-ate izugarri bilakatuko zen eta amaieran kupula izango zuen. Ezker hegalean elizaren beste bi habeak agertuko ziren, horma garbia zatitzen duten pilastretan banatuta, beheko zatia puntu Erdiko arkupe-galeriarekin zulatuta.

Ricardo Bastidaren hogeiko hamarkadako askotariko proiektu erlijiosoak hizkuntza horren jarraipenak dira. 1929. urtean tenplu berria eraiki zen Bilboko Errekalde auzoan, Errosarioko Gure Ama eliza. Obra hartan, Bastidak ildo bereko irtenbidea planteatu zuen, kupula monumentalak albo batera utzi eta kanpai-horma akabera hautatu zuen. Hori horrela, armarren, zatitutako eta kurbatutako frontoien erabilerak eta fatxadako konposizio-jolasak Aro Modernoko formetara ekartzen gaituzte.

Azkenik, erregionalismoaren fenomeno gertatu zen, iraganeko formen azken berrikusketa izango dena. Arkitektoak iraganeko estilo handietan irtenbideen bilaketa agortu du eta garaiko espiritu nazionalistaren eta 98ko belaunaldiaren sentipenaren babesean, ez dio katedral gotiko arranditsuari begiratzen, baserriari, menditar arkitekturari baizik. Leonardo Rucabado, Aníbal González eta Álvarez-Ossorio arkitektoak izan ziren menditar arkitekturaren eta «Sevillako estiloaren» adierazle gorenak, hurrenez hurren.

Euskal Herriak baserriaren irudian aurkitu zuen idiosinkrasiaren adierazpena. Horrela sortu zen arkitektura neoeuskalduna deritzona. Bi isurkiko teiltatuak, zurezko bilbadurak, arkupeak eta abar sartu zituen langileen etxebizitzetan eta klase aberatsenen txaletetan. Joera horretako arkitektoak nabarmenena Pedro Guimón izan zen eta honela zioen:

El alma regional donde se percibe en su primitiva pureza, es en la vida íntima, en el hogar, en la construcción de la familia que vive pegada a la tierra, en el campo; allí es donde hay que buscar el espíritu regional y no en la barahúnda de la capital, donde lo advenedizo mezclado con lo indígena, desvirtúa su carácter¹².

Nahiz eta estilo neoeuskaldunak arkitektura erlijiosoan izandako harrera nahiko konplexua izan, topatzen dira zenbait adibide, hala nola Gidako Ama Birjina baseliza (1933), Alonsotegiko Arbuio auzoan, Faustino Basterra arkitektoaren obra. Solairu laukizuzena eta habe zehar dituen eta bi isurkiko estalkia duen eraikuntza txikia da. Eliz ataria arkitekturaren sartuta dago, ebanjelioaren aldean itxita eta atxikita baitago. Basterrak zarpiatutako hormak eta errezerkoz, eskantzuz eta arkuz markatutako harlanduak dituen eraikuntza arrunta aukeratu zuen.

12. Guimón, P. (1907): "El Caserio", *Euzkadi*, 34. or. Aguirre, L. A. (2004): "Pedro Guimón: una aproximación", *Ondare*, 230. orrialdean aipatuta.

Monumentuen zaharbertzeari dagokionez, José María Basterrak portiko eta apaizetxe berria proiektatu zituen Arrigorriagako Santa Maria Magdalena elizarako, 1928. urtean. Portiko berria jasoko zuen beheko solairua arku beheratu eta erdi-puntukoek eta hormigoizko estalki lauak osatzen zuten hiru fatxadetan. Estalki horren gainean eraikiko zen apaizetxea, fatxadaren zabalera gutzian, terrazekin alboetan.



3. irudia. Gidako Ama Birjina basiliza (1933), Faustino Basterra.

José María Basterrak memorian azaltzen zuen eraikinari euskal estiloa eman nahi izan ziola, «inguruko giroarekin eta xedearekin harmonizatuz». Hori dela-eta, terrazetako balaustreetarako ojiba-arkuzko amaierak aukeratu zituen, «kokatuko diren tokian berezkoak»¹³. Apaizetxea baino gehiago hiriko jauregiak gogorazten dituen obra izan zen azken emaitza.

Nabarmena da arkitektoak eraikuntza erregionalista sortzeko izan zuen asmoa; horretarako erabili zituen garitoi angeluarra, teilatu-hegal irtena edo iparraldeko fatxadako zurezko bilbadurak; hala ere, emaitza asimilazio zaileko eraikuntza da, elizaren zati handia hartzen duena.

Ondorioa

1850etik XX. mendeko 30eko hamarkada arteko arkitekturak Teseo Minotauraren labirintoan sartu zenekoa gogorarazten digu. Munstroaren aurkako borroka, idealaren aurka, eta ondoren mila gela, korridore eta zokotako esparrutik ateratzeko nahia; ondo irudiztatuko lukete Giovanni Battista Piranesiren karteletako espazio zatikatu eta estugarriek.

13. BFA – Arrigorriaga 0194/022.

Ilustrazioko espiritu arrazional eta kritikoa jaso duen XIX. mendeko arkitektoak klasizismoa gainditu nahi du. Antzinate klasikoko monumentuak arretaz aztertzen ditu, gotiko deitutako estilo barbaro hari balioa ematen dio eta iraganeko monumentu (orain *historikoak* eta *artistikoak* direnak) zaharbertueta eta zorrotasun zientifikoarekin kontserbatutakoen garrantzia aditzera ematen du.

Historiaz duen ezagutzak eta garai bakoitzeko espiritu eta ideologiaren ulermenak etorkizuna iraganetik proiektatzera garamatzate. «Modernoa eta antzinakoa; nazionala eta atzerritarra; artea eta industria»¹⁴ nahastera garamatzate. Beste garai batzuekin alderatuta, XIX. mendeko arkitektoak konplexurik eta aurreiritzirik gabe begiratzen du, hau da, «estilo bakunek» egin izan zuten nagusitasunik gabe. Ideia horien isla dira Lluís Doménech i Montaner arkitekto katalanaren hitzak:

Admitamos los principios que en arquitectura nos enseñan todas las edades pasadas, que de todas, bien guiados, necesitamos. Sujetemos las formas decorativas a la construcción como lo han hecho las épocas clásicas; sorprendamos en las arquitecturas orientales el porqué de su imponente majestad...; recordemos el principio de solidez en las firmes líneas egipcias; procuremos admitir los tesoros del gusto del templo griego; estudiemos los secretos de la grandiosidad de las distribuciones y construcción romana, el de la idealización de la materia en el templo cristiano y el sistema de la decoración árabe; aprendamos la gracia del dibujo del renacimiento... En una palabra, veneremos y estudiemos asiduamente el pasado, busquemos con firme convicción lo que hoy tenemos que hacer y tengamos fe y valor para llevarlo a cabo. Se nos dirá quizá que esto es una nueva forma de eclecticismo. Si procurar la práctica de todas las buenas doctrinas... es ser ecléctico..., si cree que todas las generaciones nos han dejado alguna cosa buena que aprender y quererlo estudiar y aplicarlo es caer en esta falta, nos declaramos convictos de eclecticismo (Navascués, 1997: 42).

Doménech arkitektoak horrela erreakzionatzen du bere garaian eklektizismoak jaso zituen kritiken aurrean eta iraganeko forma bakoitzetik onena hartzen duen estiloa aurkezten du, aztertu eta ikasi duena. Izan ere, eklektizismoa beti hartu izan da trantsizioko estilotzat, denboran zehar arkitektura originala ekarriko zuen estilotzat.

Aurkeztu dugun ibilbide luzean, ornamentuzko gotizismotik erregionalismora, Bizkaiko praktika arkitektonikoak garaiko espirituarekin bat egiten du. Gure ondare erlijiosoak konplexurik gabe begira diezaioke estatuko gainerako praktikari; izan ere, garaiko joera nagusiak ezagutzen zituzten arkitektoak zituen eta, kasu askotan, joera haien ordezkari nagusiak zirenak.

Bizkaiko Jaurerrian eraikitako tenplu berriak kultura eklektikoaren adierazgarri perfektuak dira, baina zer gertatzen da gure arkitektoak zaharbertitze-proiektuarekin topatzen direnean? Azterketa labur honetan ikusi dugunaren arabera, XIX. mendeko arkitektoek hizkuntza eta gustu berriak monumentu historiko artistikoetara egokitu besterik ez zuten egiten. XIV. mendetik XVI. mende arteko fabrikeri

14. Rada y Delgado, J.: "Cuál es y debe ser el carácter propio de la arquitectura del siglo XIX", Navascués, P. (1997): *op. cit.*, 43. orrialdean aipatuta.

gorputz neobarrokoak eta neomediebalistak gehitzen zaizkie eta tenpluetako jatorrizko zatiak ere suntsitu egiten dira irudi berria emateko xedearekin.

Horrela, iragana *modernizatu* eta XIX. mendeko gustuetara egokitu nahi da: hotsandikoa eta monumentalak. Adibiderik argiena Bilbo hiribilduan aurkituko dugu: Santiagoko Basilika-Katedraleko dorre berria eta fatxada, Begoñako Basilikako dorrea eta Abandoko Done Bikendi Martiriaren elizarako proiektu neobarrokoa, zorionez gauzatu gabekoa. Jatorrizko formekiko inolako errespeturik ez duten esku-hartzeak dira eta badirudi ez dituztela ezagutzen edo jaramonik ez dietela egiten John Ruskin, monumentuen kontserbazioaren defentsari eta zaharberritzearen aurkari nagusietako bat, pentsalari ingelesak aurrez aipatutako hitzei.

Azken batean, Bizkaiko arkitektura erlijiosoak, bai tenplu berrietan, bai zaharberritze-lanetan, egun duena baino azterketa zabalagoa merezi du. Horrela soilik lortuko dugu duela urte gutxi arte existitzen ez zela zirudien ondare aberatsa balioetsi eta kontserbatzea. Horrela soilik iritsaraziko diegu gure ondoren etorriko diren belaunaldiari Bizkaiko historiaren garai garrantzitsuenaren sentipena: XIX. mendea.

Bibliografia

- Argan, G.C. (1977): *El pasado en el presente. El revival en las artes plásticas, el cine y el teatro*, Gustavo Gili, Bartzelona.
- Basurto, N. (1995): "El medievalismo en el Bilbao finisecular nuevos templos y reconstrucciones", *Archivos de Arquitectura*, 49-60.
- Collins, P. (1998): *Los ideales de la arquitectura moderna; su evolución (1750-1950)*, Gustavo Gili, Bartzelona.
- Goethe, J.W. (1999): *Escritos de arte*, Síntesis, Madril.
- González-Varas, I. (1999): *Conservación de bienes culturales. Teoría, historia, principios y normas*, Cátedra, Madril.
- Hernando, J. (2004): *Arquitectura en España. 1700-1900*, Cátedra, Madril.
- Honour, H. (2004): *El Romanticismo*, Alianza, Madril.
- Isac, Á. (1987): *Eclecticismo y pensamiento arquitectónico en España: discursos, revistas y congresos: 1846-1919*, Universidad de Granada, Granada.
- Marchán, S. (2008): "La disolución de lo clásico en el relativismo del gusto", *Anales de Historia del Arte*, 1.
- Moneo, J. R. eta Solá-Morales, I. (1975): *Apuntes sobre Pugin, Ruskin y Viollet-le-Duc*, Escuela Técnica Superior de Arquitectura.
- Navascués, P. (1987) "La restauración monumental como proceso histórico: el caso español, 1800-1950". *Curso de mecánica y tecnología de los edificios antiguos*, Colegio Oficial de Arquitectos, Madril.
- , (1992): *El siglo XIX. Bajo el signo del Romanticismo*, Silex, Madril.
- , (1997): *Arquitectura española 1808-1914*, Espasa-Calpe, Madril.
- Ordieres, I. (1995): *Historia de la restauración monumental en España (1835-1936)*, Ministerio de Cultura, Madril.
- Paliza, M. (1988): *Manuel María de Smith Ibarra arquitecto 1879-1956*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- Pérez de la Peña, G. (2004): *Bizkaiko Eliz Arkitektura Garaikidea 1865-1975. Erromantizismotik Mugimendu Modernora*, Eliz Museoa, Bilbo.

Ruskin, J. (2002): *Las siete lámparas de la arquitectura*, Alta Fulla, Bartzelona.
Urrutia, A. (2003): *Arquitectura española, siglo XX*, Manuales Arte Cátedra, Madril.
ZZEE (1991): *Arkitektura Neoklasikoa Euskal Herrian*, Eusko Jaurlaritza.
_____, (2002): *Ricardo de Bastida arquitecto*, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala, Bilbao.

